



PREST :

ELKARTEAK ETA UDALAK ELKARLANEAN



01 Lankidetzarako deia

Zinegotzi, teknikari edota alkate zaren aldetik, **ongi etorri zure udal-legegintzaldi berri** honetara.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruan sortua, **Elkarteen Foroa** elkarrekin elkartzeko gune bat da, herritarren parte-hartzeari buruzko gaiak joratzeko. Gogoeta-prozesu baten ondorioz, testu honen bidez udal guztietara jotzea erabaki dugu, elkarteen eta toki-administrazioen arteko lankidetzarako mezu bat helarazi nahi dizuegulako, asmo argi batekin: **komunitatea indartzea**.

Jakin badakigu Elkarteen Foroan udalerrri guztietako elkarrekin ez dutela parte hartzen, baina uste dugu ekimen horrek guztion onerako balioko duela. Hala ere, argi utzi nahi dugu ez garela inoren ordezkaria, eta herri bakoitzeko elkarrekin eta tokiko administrazioek sortu behar lituzketela harremanetako bide zuzenak.

Gure ustez, **herritarren parte-hartzea, herrigintza eta elkarrekin ezinbestekoak dira herri bakoitzaren garapenean**. Badakigu zuetako askok elkartegintzak herritarrei egiten dizkieten ekarpenak baloratzen dituzuela eta dagoeneko elkarrekin ari zaretela; hala ere, lankidetzara hori zuten udal-gobernantzan errotzea gustatuko litzaiguke, udaleko sail guztietako eredu izanik, eta, horretarako, lankidetzan aritzeko prest gaude.

Udal bakoitzeko arlo guztietara jotzen dugu, politikoak zein teknikoak. Izan ere, ezin diegu bakarrik – ez guk, ez zuek – aurre egin gaur egungo gizarte-erronka konplexuei, baizik eta elkarrekin egin behar dugu, guztiok komunitatea indartu nahi dugulako.

02 Elkar ezagutzen al dugu?

Gustatuko litzaiguke daukazuen herriko elkartegintzaren inguruan ezagutza mantentzea edo, kasuan kasu, areagotzea; eta alderantziz, elkarrekin zuten kudeaketara hurbiltzea; ezagutzatruke horretatik lankidetzarako bideak zabalduko zaizkigulakoan.

Galdere hauen bidez herriko egoerari hurbilpen azkar bat egitea proposatzen dizuegu:

- Zer behar sozial dituzte hemengo herritarrek? Nola asetzen dituzte?
- Elkarrekin herritarren zer behar asetzen dute?
- Nola lortu daiteke herritarren bizitza duina bermatzea? Udal eta elkarrekin elkarrekin aritu al gaitzake erronka horretan?

Partekatze beharrak eta marko amankomun bat eraikitze onerak badauzkagula uste dugu. Hortaz, gure errealitatea eta jardueraren zentzuzko diren ezagutzea beharrezkoa dela deritzogu.

Ezagutzen al duzue nolako den elkartegintza zuen herrian?

- Ba al dakizue zeintzuk diren zuen herriko elkarrekin egoera, zailtasunak (boluntarioak, pasioa, nekea, erreleboa, liberatuak, burokrazia...)?
- Ba al dakizue zer elkarrekin mota dagoen zuen herrian? Non duten egoitza?
- Zenbat eta zer arlotan lan egiten duten?
- Azken urteetan, zenbat ekimen egiten dituzten?
- Zenbat denbora inbertitzen duten elkartegintza lan horretan?
- Udalak elkarrekin zein elkarrekin kideei egiten al die nolabaiteko aitortzarik?
- Ba al dago udal eta elkarrekin arteko elkarrekin gunerik?
- Eta amaitzeko, pentsatu al duzue nola izango litzatekeen zuen herria elkarrekin gabe?

03 Zer bide egin genezake datozen urteetan?

Elkartegintza indartzeko eta elkarrekin sustatzeko **ez dugu zerotik hasi behar, badaude herrietan zenbait baliabide eta esperientzia**. Hala ere, ideiak, ekintza edota baliabide hauek indartzea proposatzen dugu:

- Elkarrekin guneak irekitzea: udalaren egiturak berrantolatzea edo eraldatzea.
- Elkarrekin katalogo bat herritarrei eskaintzea.
- Burokrazia gutxitzea edo malgutzea.
- Leihatila bakarra sustatzea.
- Eskura ditugun baliabideen zerrenda egitea.
- Diruz laguntzea.
- Elkarrekin egiten dituzten ekarpenak aitortzea eta babestea.
- Herritarren partaidetza sustatzea udaleko atal guztietan (kultura, ingurumena, hirigintza...) eta parte hartze prozesu bakoitzaren faseetan.

Elkarrekin, zuek bezala, gai publikoetan herritarren inplikazioa biltzen dugu, eta erronka horrekin bat egin nahi dugu, lortu nahi dugun komunitate aktiboaren sorkuntzan eraginkorrak izateko.

Elkarrekin kritikotasuna eraikitzailea eta sortzailea aintzat hartzea proposatzen dizuegu, izan ere, **kalitate demokratiko onaren adierazlea izan daiteke**.

Har ezazue ematen ari garen pausu hau lankidetzara prozesu horren guztiaren abiapuntua bezala.



partaidetza@gipuzkoa.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro